

DESKRIBAPENA

Gu Teknolimits taldea gara eta gure proiektua azaldu nahi dizuegu. Guk asmatutako proiektua hasiera batean arrakasta gutxi izango duela badirudi ere, erabiltzen duzun heinean proiektuaren erabilgarritasun mailaz konturatzen zara. Gure lana irakurriz gero proiektuaren baliagarritasuna ezagutuko duzu. Gainera, gu proiektua ondo saltzeaz arduratu gara honen ezaugarri eta abantaila guztiak ondo azalduz. Bestalde, produktua oso eroso da erabiltzen duen pertsonarentzat, edozein lekuan gorde edo berarekin eraman dezakeelako.

Baina, nolakoa da gure proiektua?

Eskola guztietako gelatan gutxienez arbela bat egoten da; horregatik, gure proiektua ikastoletan ezinbestekoa da. Hasiera batean, pentsatu genuen arbelak garbitzeko mekanismo bat asmatzea, baina honen zailtasunak eta teknologiaren beharrak ikusiz konturatu ginen proiektu hori aurrera ateratzea oso zaila izango zitzaila. Beraz, zerbait praktikoagoa egitea pentsatu genuen, kontsumitzaileen erosotasun eta etorkizunean izango lituzketen gastuei erreparatuz. Horregatik, proiektu sinpleago batean murgiltzea erabaki bagenuen ere, esentzia ez zuen galdu.

Gure proiektuaren helburu nagusia klarion- edo errotuladore-arbelak garbitzea da. Nahiz eta arbela garbitzeko gailua egon, normalean txikia eta zikina izaten da. Gainera, ertzak garbitzea oso zaila izaten da goikaldeko aldera ez zarelako iristen. Baina, gure proiektuarekin oso erraza egingo zaizu arbela guztiz garbi mantentzea eta zure eskuak ez zikintzea. Guk aurkezten dugun konponbidea garbigailu handiagoa egitea da helduleku luzeago batekin, klariona zein errotuladore arbelak garbitzeko.

Asmatutako produktuaren formaz hitz egiterakoan, esan behar dugu T forma duela. Tramankuluaren neurriak 30 cm luzez eta 5 cm zabaleraz izango dira. Garbigailuaren alde batetik klariona garbitzeko oihala egongo da eta beste aldetik belakia. Tamaina desberdineko heldulekuak aurkitu ahal izango dituzu gure enpresaren Webgunean (www.teknolimits.es). Azkenik, PVCs eginiko kirtena erabiliko dugu; horrela, ez da oso pisutsua izango eta ez da erraz puskatuko.

Prezioari dagokionez zenbait promozio aurkeztuko dizkizuegu:

- Tramankulu bat erosten baduzu: 9,99€

- Bi tramankulu erosiz gero: 14,99€

Gure produktuak arrakasta lortzeko lehenengo 100 erosleei promozio berezi bat egingo diegu: ordezko sei oihal eta sei belaki oparituko ditugu gure produktua saltzean. Bestalde, ondorengo erosleei hiru oihal eta hiru belaki oparituko dizkiegu garbigailua erostean.

Gainera, garbitzeko tresnaren barrualdean klarionak eta errotulagailuak gordeta egongo dira.

Proiektuaren deskribapena amaitu ondoren, enpresa martxan jartzeko eman ditugun pausoak azalduko dizkizuegu.